

MENDIZALE ASTEA BUKATU DA

“Aurten inoiz baino jende gehiago izan da”

Antolatzaileak gustora Asteak izan duen harrerarekin n Gaur, igandea, autobus-kada bete mendizale Urederrara joango da, egunpasa.



Umeak ostiraleko ekitaldian, kolkotik behera medailak dituztela, pozak txoratzen.

UREDERRAKO parajeak bitatuta bukatuko da aurtengo Mendizale Astea. Tradizio haundiko astea da. Badira 21 urte Argazki Lehiaketarena hasi zela; Astea bera hasi zela, ordea, oraindik gehiago. Amaia, Luzi eta Fatima iraila aurretik hasi ziren dena antolatzen. Orain, ia bukatu denean eta hernaniarrek nola erantzun dioten ikusita, oso gustora.

IKASTAROA AURENA
Larrialdi egoeretan edo mendian istripuak gertatzean nola jokatu erakutsi zieten ikastaroan egon ziren 18 lagunei. Berez, ikastaroa ez dago Mendizale Astearen barruan; baina, erakutsi ez ezik giroa berotzen lagundu du.

UMEAK PROTAGONISTA
Egitarauan herritarrek tarte

berezia izaten dute urtero, eta batez ere umeek. Mendira hainbesteko bat aldiz joan direnei medailak eman zizkieten ostiralean. Gazteenak 4 urte zituen. Egunero 100 lagun pasatxo ibili da, eta ostiralean bete egin zen Biteri. Gaurko Urederrako buelta eta gero, abenduaren 3an Beriainera joango dira. Urtarrilean, berriz, eski ikastaroa. □

■ ARRAUNA

Astelehenean hasiko dira entrenatzen; jende berria sartu liteke oraindik

Bihartik aurrera, 19:30etan Elorrabin bildu eta asteen 6 egunetan hasiko dira entrenatzen arraunlari guztiak, heldu eta gazte, neska eta mutil. Oraindik talde guztiak erabat osatu gabe daude eta jende berriari animatzeko gonbitea egiten dio Arraun Elkarteak. ☎ 943-557882.

100 korrikari hernaniar gaur Behobian

11:00etan hasiko da 20 kilometroko maratoi erdia.



Behobia korritu zuen Hernaniko koadrila, orain dela bastante. Horieta bakarren bat gaur ere aterako da. (X. Iriartek utzia)

10.000 KORRIKARI artean, Hernanik han izango du bere ordezkaritza. 1998an, Felipe Agirrezabalaga (1:15:53) izan zen helmugara iritsitako aurreneko hernaniarra, 237. postuan. Atzetik, Sergio Roman (1:17:43) eta Felix Merino (1:19:14). Lehenengo neska, berriz, Izaskun Errazkin (1:32:00) izan zen, 2146. postuan. Gero, Ainara Errazkin (1:32:00) eta Ixiar Urdangarin (1:34:59). Patxadarik haundiena Fernando Ceak ekarri

zuen (2:18:27). Ostera, 1997an, Sergio Roman izan zen herriko onena (1:12:24).

HERNANIKO NIKIA

Duela bost urte inguru, herriko jende dezente atera zen Hernaniko niki eta guzti. Baina, ideak ez zuen segidarik izan.

ARGAZKIA

Kronikak Behobian aterako diren hernaniarrei argazkia aterako die: 10:30etan irteera ondo-ko surtidore atzeko patioan. □

■ 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Sudupe - Hernani

Sudupen (Bizkaian) jokatu dute gaur arratsaldeko 16:00etan.

■ EUSKADIKO ERRUGBI LIGA

Hernani - Bera Bera

Partidua Landaren da gaur 11:30etan n Bera-Bera lehen postuan doa.

URMAR BIKOLAJEA

Oztaran auzoa, 13
Tel 943 552616-Faxa 943 552412
20130 URNIETA (Gipuzkoa)

GasHernani
Zure etxerako energia naturala
GAS NATURALA

Gudarien Enparantza z/g, Tfnoa.: 943 33 09 28
20120 HERNANI

AMEGAR, C.B.
ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK	ELEKTROGAILUAK - TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Izpizua 27	Txirrita kalea 15
Telefonoa (943) 55.11.25 - Faxe (943) 55.16.03 HERNANI (Gipuzkoa)	

HIRUGARREN ADINAREN ASTEAK AZKEN EGUNA

Diana, Meza Nagusia eta Banda goizean eta berbena arratsaldean

Sandiusterri bete jende izan zen atzo arratsaldeko ekitaldietan.



Sandiusterri bete egin zen atzoko ekitaldian.

EGUN osoko programa gaur Sanduisterriko Zaharren Egoitzan: 10:00etan, diana; 11:00etan, Meza Nagusia; eta 12:00etan Hernaniko Banda. 13:00ean, bazkari berezia; bukatzeko, 17:00-etan berbena Gelatxo taldearekin.

Atzoko ekitaldiak Mertxe Etxeberria alkatea eta Joxe Leon Etxart Ongintzako jereentea izan zituen buru. Diapositibak eta antzerkia ikusten Sandiusterri bete jende zegoen, adineko eta senitarteko artean. Gero afari merienda egin zuten, trikitilari eta guzti, giro eder askoan.

HITZ BITAN



Latsunbe Berriko jaiotza, iaz Atarrabiyo parkean.

✓ JAIOTZA LATSUNBE BERRIN

‘Iturritxo’ auzo elkarteak jaiotza jarriko du Atarrabiyo parkean. Latsunbe Berri da Eguberritako jaiotza jartzen duen lehen auzoa. Iaz jarri zuten lehenengoz eta aurten berriz. Aurten, ordea, jaiotza haunditzeko pieza gehiago egiteko asmoa dutenez, auzotarren laguntza eskatu dute. Horretarako astelehenean (azaroak 13) bilera dago auzo elkartearen egoitzan (Latsunbe-Berri, 32).

✓ PELOTA

Iñaki Esnalek 22-12 galdu zuen ostiralean Otaegiren kontra 2. mailako lauterdiko txapelketan. Partidu erdirarte oso ondo aritu zen hernaniarra, baina, Otaegik pelota gogor astinduta nekatu arazi egin zuen. Finalurreko *ligillako* lehen partidua izan da hau; Iñakik beste bi partiduko jokatu beharko ditu, eta oraindik badu aurrera pasatzeko aukerarik. Jaialdiko beste partiduan Oiaga-Aldazabal IVk galdu egin zuten Arteaga-Kortaren aurka.

✓ USO PASEA

Atzo ikeragarri pasa zen usoa; “altu eta kostaldetik” ehiztariek esaten zuten. Atzo aprobetxatu zutenak gustora egon litezke, behin San Martinak ezker ez baita asko izan ohi. □

On egin!!

PEÑA Otaño elkarte berritua *bedeinkatu* dute. Atzo egin zuten inaugurazio afaria eta 60 bat lagun bildu ziren. Ekitaldi hasieran, Joxe Miel Azurmendi lehendakariak hitz batzuk esan zituen. Gero, Patxu Iriondo lehendakari izanak moztu zuen zinta. Ondorenean, urdaiazpiko tortila, txuleta latzak eta nahiko sagardoa. Altxairuzko Barrikotea Aburuzak jarri zuen, baina, Barkaiztegi, Otsua-Enea eta Petritegi ere hor ziren. *Inauguratualdi* ona emana izango zioten! □



Ezkerrean Azurmendi; zinta moztzen, Iriondo; eskubian, Aristeta.

JASOTA BEZALA

Hernaniko EH udal taldeak garbi utzi nahi du iritzia publikoaren aurrean, oposizioak dionaren kontra, gestio lanak aurrera darraitela: Hernaniko biztanleen ongizatea hobetzeko, eskaintzen diren zerbitzuak hobetuz eta zabalduz, aberastasuna banatzeko modu aurrerakoiak bilatuz, aisialdia guztiontzat bultzatuz, Hernaniko baliabide urbanistikoak

bertakoentzat kudeatuz eta hernaniarron integrazioa bilatuz. Horretarako, herriko sektore guztiekin jarri gara harremanetan, baita oposizioarekin ere, nahiz eta hauek batzordeetan sarritan ez parte hartu, erabakiak atzerarazteko saiakerak egin eta hauengatik jaso ditugun proposamen bakarrak Gobernu Taldeak egindakoak kuestionatzeko izan, baina

inoiz ez arazoak konpontzeko edo alternatibak aurkezteko.

Bukatzeo, adierazten dugu EH Udal Taldeak bere garaian aurkeztutako programa betetzen ari garela eta programa honek dioen bezala, oposizioak baduela parte hartzeko aukera, ez zirikatzeo soilik.

Euskal Herritarrok Udal taldeak

AGENDA	❖ ZINEA	❖ MUSIKA
	Haurrentzakoa: <i>Stuart Little</i> . Biterin 17:00etan.	Irailerako sei taldea Oialumen, 20:00etan.
	Helduentzakoa: <i>La Tormenta perfecta</i> . Biterin 19:30etan.	❖ ZIRKOA
		Holiday zirkoa 12:00, 17:00 eta 19:15etan, Sagastialden.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak:	943 550093
▶Udaltzaingoa:	943 333288
▶DYA:	943 464622
▶Autobusak	943 556662
▶Anbulatorioa:	943 557750

☎ FARMAZIAK

▶Egunez: Gomez Justel Nagusia, 15
☎ 943 554892
▶Gauz: Elizondo Andoain, Zumea, 30
☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

▶ Astigarragako taberna batean, tabernaria behar dut. Goizez deitu. ☎ 943. 33 06 47



SANTA BARBARA
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOEZ ALDATZEN DITUGU

▶ Peugeot 405 <i>Diesela</i> nahiz <i>Gasolina</i>	
▶ Peugeot 205 <i>Diesela</i>	
▶ Citroen C-15 <i>Diesel</i> batzuk	380.000 pztatik
▶ Ford Courier <i>Diesela</i> -Lagundutako <i>direkzioa</i>	
▶ Opel Astara ‘Caravan’ <i>Diesela</i>	675.000 pzta
▶ Opel Astra <i>Diesela</i>	875.000 pzta
▶ Suzuki ‘Todo Terreno’	375.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...



Yolanda
OSASUN ETA ESTETIKA
ZENTROA

Atzieta 2 behea atzekaldea - Tel. 943 55 32 78 - HERNANI

AZKEN BERRIKUNTZAK ESKURA
Aurpegi eta gorputza depilatu, Diodo laser bidez.
(Osasungarria, minik gabea eta azalarentzat arriskurik ez).
Medikuak begiratuta.
Aurpegiko *lifting* eta abar.



ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

Allianz 

ASEGURUAK
Agustin Ezpanda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109





Nagusia 36 **Orkolaga 17**
943 55 04 89 943 55 27 41
HERNANI